

Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak

Emitzen aurrerapena

Lanketa:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

Argitaraldia II-2006

Argitalpena:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.eustat.es

© **Euskal AEko Administrazioa**

Administración de la C.A. de Euskadi

Lanketa:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

Argitaraldia II-2006

Argitalpena:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.eustat.es

© **Euskal AEko Administrazioa**

Administración de la C.A. de Euskadi

Aurkibide

1. EUSKAL SEKTORE PUBLIKO AUTONOMOA. 2002	2
1.1. Aurrezki gordina	2
1.2. Finantzaz kanpoko aurrekontu-saldoa	3
1.3. Finantzatzeko saldo garbia	5
1.4. Ekitaldiko diruzaintza-aldakuntzak	6
1.5. Bukaerako izakinak guztira	6
2. DIRU-SARRERAK	6
3. GASTUAK	10
4. EUSKAL ADMINISTRAZIO AUTONOMOAK ENPLEGATUTAKO LANGILEAK	12
5. EUSKAL ADMINISTRAZIO AUTONOMOAREN ZORPETZEA	12
6. GASTUAREN BANAKETA FUNTZIONALA	13
7. ONDORIOAK	14
8. 2003KO AURREKONTUAK	14
9. ERANSKINA	16

Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak

1. EUSKAL SEKTORE PUBLIKO AUTONOMOA. 2002

EUSKAL SEKTORE PUBLIKO AUTONOMOA

Erakundeen aldetik, hau da analisi honen eremua: Eusko Jaurlaritzaren eta haren erakunde autonomoen ekonomia- eta finantza-jarduna, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-administrazioak. Lurralde-administrazio horietan sartuta daude, lurralde historiko bakoitzari dagokionez, foru- eta udal-administrazioak, euren erakunde autonomoekin batera, bai eta udalez gainetiko erakundeak (kuadrillak eta udalen mankomunitateak) ere. Kanpoan gelditzen da, ordea, erakunde horien mendeko enpresa-sektore publikoa. Moltz horri euskal sektore publiko autonomoa edo euskal administrazio autonomoak deritza.

1.1. Aurrezki gordina

2002ko ekitaldian, %1,6 handitu da Euskal Administrazio Autonomoaren eragiketa arrunten saldoa.

Euskal Administrazio Orokorrek 10.149,2 milioi euroko sarrera izan zuen 2002ko ekitaldian, eta gastu arrunta 8.177,2 milioi izan zen. Hortaz, aurrezki gordina, hau da, Euskal Administrazio Autonomoen eragiketa arrunten saldoa, 1.972,0 milioi izan da.

Sarrera arrunt gisa izandako guztizko sarrerak %5,7ko urteko hazkundea izan du 2001eko diru-bilketaren aldean; eta ordaindutako gastu arruntak, berriz, %6,7 hazi dira. Ondorioz, eragiketa arrunten saldoak %1,6ko urteko igoera izan du 2002an, aurreko urteko emaitzekin alderatuta.

Eragiketa arrunten saldoaren (aurrezki gordina) bilakaera ez da bera izan Euskal Administrazio Autonomoko erakundeetan.

Eusko Jaurlaritzaren aurrezki gordinak %0,4ko beherakada apala izan du 2002ko ekitaldian, aurreko urtearekin alderatuta; alegia, 980,8 milioi ziren 2001ean, eta 976,2 milioi, 2002an.

Hiru Foru Aldundien eragiketa arrunten saldoek gora egin dute, baina urte arteko tasa desberdinak izan dituzte: Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrezki gordinak %89,5 egin du gora. Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiek ere gorakada izan dute, baina askoz ere urteko hazkunde txikiagoarekin; alegia, %5,5 eta %1,3, hurrenez hurren.

Joera hori ez dator bat Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalenarekin. Izan ere, emaitzek bilakaera negatiboagoa uzten dute agerian, eta hiru lurraldeetan egin dute behera aurrezki gordinekin. Beherakada handienak Arabako eta Bizkaiko udaletakoak izan dira (%-24,9 eta %-22,3, hurrenez hurren). Gipuzkoakoek, berriz, hein txikiagoan egin dute behera (%-1,1).

Bi faktorek eragin dute udalen aurrezki gordinen beherakada: Arabako eta Gipuzkoako udaletan, nahiz eta azken horietan hein txikiagoan, sarrera arrunten bilakaeraren joera bat dator Euskal Administrazio Autonomoko batez besteko tasekin, baina, gastu arruntak konparaturik, hazkunde handiagoa nabari da. Bestalde, Bizkaiko udaletan, gastu arruntaren urteko bilakaera ez da guztizko batez besteko balioen kontrakoa, baina sarrera arruntek %1,8ko urteko beherakada izan dute.

Euskal Administrazio Autonomoak izandako gastu arrunten atalean, urteko hazkunderik handiena 2. kapituluari dagokio; izan ere, %11,5 hazi da 2002ko ekitaldian. Bestalde, 1. kapituluak (langileria-gastuak) eta 4. kapituluak (transferentzia arruntak) hazkunde txikiagoa izan dute (%5,4).

1.2. *Finantzaz kanpoko aurrekontu-saldoa*

Finantzaz kanpoko eragiketen saldoak %27,1 egin du behera.

Jada zazpi aurrekontu-ekitalditan (2002koa barne) nabari da Euskal Administrazio Autonomoen aurrekontu-likidazioen balantze bateratuak finantzez besteko gastuak baino handiagoak diren finantzez besteko sarrerak dituela, nahiz eta alde hori txikiagoa den azken bi urteotan. Horrenbestez, sei urte jarraitutan aurrekontu-saldoa positiboa izan da (aurrekontu-superabita) Euskal Administrazio Autonomoetan.

Finantzez besteko eragiketen superabita handia izatera iritsi zen 1998. eta 2000. urte artean (951 milioi azken ekitaldi horretan); baina txikitu egin da ekitaldi horretatik aurrera, eta 336,5 milioikoa izan zen 2002an. Aurreko urtearekin alderatuta, %27,1eko beherakada izan zuen 2002an.

Finantzaz kanpoko eragiketen saldoak behera egin zuen (2002an 336,5 milioi, Euskal Administrazioan) kapital-gastuek gora egin zutelako eta, zehazki, 2002ko ekitaldirako inbertsioak %25,6 hazi zirelako.


Eusko Jaurlaritzaren finantzez besteko saldoak %14,8 egin du gora, batez ere, kapital-sarrerek hazkunde konparatiboa izan dutelako, eta inbertsioetan eta kapital-transferentzietan egindako gastuek aldaketa txikiagoa jasan dutelako. Kapital-sarrerek 73 milioi egin dute gora, eta kapital-gastuek, berriz, 27 milioi; alegia, ia hiru aldiz gutxiago.

Arabako erakundeek guztizko bateratuaren (Foru Aldundia eta udalak) finantzez besteko aurrekontu-saldoak gora egin du; oraindik negatiboa den arren, -22 milioiko saldo negatiboa izatetik, -4 milioikoa izatera pasa da. Arabako erakundeek lortutako aurrekontuen hobekuntza ia osoak Foru Aldundia du jatorri; izan ere, udalek ez dute saldo defizitariora ia urritu.


Bizkaiko finantzez besteko aurrekontu-saldo bateratuak 114 milioiko beherakada izan du. Superabita 97 milioi izan zen 2001ean, eta defizita 17 milioi 2002an. Bizkaiko Foru Aldundian, aurrezki gordinaren gorakadagatik ere, %13 hazi da aurreko defizita; izan ere, inbertsio-bolumena asko handitu da. Bizkaiko udalek 100 milioi eurotik gora gutxitu dute aurrekontu-saldo positiboa. Zenbateko hori ia bat dator aurrezki gordinaren beherakadarekin.

Gipuzkoako erakundeek finantzez besteko aurrekontu-saldoak superabita izaten jarraitzen du, baina 2001ean izandako 100 milioietatik, azken urteko 28 milioietara jaitsi da. Foru Aldundiak, 2001ean baino aurrezki gordin gehiago izanik ere, aurrekontu-superabit txikiagoa du, inbertsio-gastu handiagoak izan dituelako. Gipuzkoako udaletan ere antzeko zerbait gertatu da. Gainera, aurreko urtekoa baino aurrezki gordin gutxiago zuten abiapuntu. (Ikus eranskina, 1. taula)

1. grafikoa. Finantzez besteko aurrekontu-saldoaren bilakaera.



2. grafikoa. Finantzez besteko aurrekontu-saldoa, BPGaren ehunekotan.



1.3. *Finantzatzeko saldo garbia*

Euskal Administrazio Autonomoak duen finantzatzeko saldo garbia ia 500 milioi hazi da.

Finantzez besteko aurrekontu-saldoari finantza-aktiboen aldakuntza kentzen bazaio (gastuen VIII. atala ken sarreraren VIII. atala) eta aurreko ekitalditik kobratzeko dauden eskubideak (ekitaldian onartutako eskubideen eta eskubide horietatik egindako kobrantza likidoen arteko aldea) ere kentzen bazaizkio, finantzaketa-saldo garbia lortzen da. Horrenbestez, superabitaren edo defizitaren kontzeptu hori zabalagoa da finantzez besteko aurrekontu-saldoaren kontzeptua baino.

Kontzeptu horrek —saldoa negatiboa denean— Administrazioari eman beharreko finantza-baliabideen guztikoa adierazten du, hain zuzen ere, benetako jardueren eta finantza-jardueren ondorioz sortutako finantzatzeko-behar orokorre aurre egiteko behar den guztikoa. Saldoa positiboa bada, berriz, Administrazioak finantza-betebeharrei aurre egiteko nahikoa baliabide duela adierazten du.

Emaizta positiboko bi ekitaldiren (1999 eta 2000) ondoren, Euskal Administrazio Autonomoaren finantzatzeko saldo garbi bateratuak emaitza negatiboa izan zuen berriro 2001ean (-389 milioi). Aurrekontu-partida horren defizitak ia 500 milioi gehiago egin du gora 2002an, eta -887 milioi da.

Euskal Administrazio Autonomoaren finantzatzeko-beharren hazkunde horrek badu azalpena, zati handi batean, bi aurrekontu-partidaren bilakaeran: Alde batetik, lehen ere ikusi bezala, 2002an finantzez besteko aurrekontu-saldoak behera egin du (2001ean baino 125 milioi gutxiago); bestetik, ekitaldian kobratzeko zeuden eskubideek gorakada handia izan dute (2001. urtearekin konparatuta, 316 milioi hazi da partida). Bi faktore horiek zuzenean eragin diote 2002. urteko finantzatzeko saldo garbiaren bilakaerari.

Euskal Administrazio Autonomoa osatzen duten erakunde guztiek, salbuespenik gabe, finantzatzeko saldo garbi negatiboak dituzte ekitaldi horretan. Eusko Jaurlaritzaren finantzatzeko saldo garbiaren defizita 140 milioi hazi da; alegia, ekitaldi horretan kobratzeko dauden eskubideen gorakadarekin bat dator ia.

Arabako Foru Aldundiak eta udalek, atal honetan, Administrazio Autonomoaren bilakaera orokorraren ezaugarri berberak dituzte. Finantzatzeko saldo garbiak negatiboak izan ziren 2001ean, eta ez dira asko aldatu 2002an, nahiz eta defizitak igoera apala izan duen.

Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzatzeko saldo garbiaren defizita 40 milioi hazi da. Izan ere, finantzez besteko saldoa aurreko urtean baino negatiboagoa du, eta finantza-aktiboen aldakuntzak eta kobratzeko dauden eskubideek gora egin dute. Bizkaiko udalek, 2001ean, finantzatzeko saldo positiboa izan zuten (83 milioi); emaitza negatiboak dituzte, ordea, 2002an, eta finantzatzeko saldoaren defizita (-) 76 milioi da. Bilakaera horrek bi kausa ditu: finantzez besteko eragiketen saldoa 100 milioitik gora murriztu da, eta kobratzeko dauden eskubideak 100 milioitik gora hazi dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2001ean, finantzatzeko saldo positiboa zuen (54 milioi); defizitera hurbiltzean ari da ordea, eta finantzatzeko saldoa negatiboa du (-5 milioi). Bilakaera horren kausa nagusia da finantzez besteko eragiketen saldoak behera egin duela (-46 milioi). Gipuzkoako udalen finantzatzeko saldo garbiaren defizita 70 milioi hazi da (40 milioitik 112 milioira), bi faktore direla kausa: finantzez besteko eragiketen saldoak behera egin du (25 milioi), eta kobratzeko dauden eskubideak hazi egin dira (50 milioi).

1.4. Ekitaldiko diruzaintza-aldakuntzak

Diruzaintza-aldakuntzak %45,0 igo dira aurreko urtekoen aldean.

Finantzaketa-saldo garbiari, batetik, finantza-pasiboen aldakuntzak (sarreraren IX. atala ken gastuen IX. atala) gehitzen bazaizkio, eta, bestetik, aurreko ekitalditik ordaintzeko dauden obligazioak —alegia, obligazio horiei dagozkien ordainketa likidoak aurreko ekitalditik ordaintzeko dauden obligazioei kentzean sortutakoak— gaineratzen bazaizkio, ekitaldiko diruzaintza-aldakuntzak lortzen dira.

Ekitaldiko diruzaintza-aldakuntza, 2002an, 826 milioi eurokoa izan da; hau da, aurreko urtean baino %45,0 gehiago. Ekitaldiko diruzaintza-aldakuntzaren gorakada hori bi partidak eragin dute; izan ere, aurreko ekitaldiaren aldean, hazkunde nabarmena izan zuten. Lehenik eta behin, ekitaldiko ordainketa-obligazioek %16,1 egin dute gora; igoera askoz ere txikiagoa izan da ekitaldian kobratzeko zeuden eskubideen partidarena baino; izan ere, urteko hazkundera %50etik gora hazi da. Ekitaldiko diruzaintza-aldakuntzaren urteko gorakada horri eragin dion bigarren elementua finantza-pasiboen aldakuntza izan da; izan ere, 2002an 324,4 milioi euroko sarrera garbiak izan ziren, eta -151 milioi eurokoak urtebete lehenago.

Finantza-pasiboen aldakuntza, 2001ean, negatiboa izan zen (-151 milioi); izan ere, 9. ataleko gastuen zenbatekoa (560 milioi) handiagoa zen atal horretako sarrerena baino (409 milioi).

Finantza-pasiboen aldakuntza, 2002an, positiboa izan zen; izan ere, 9. ataleko sarreraren zenbatekoa (690 milioi) atal horretako gastuena ia halako bi izan zen (366 milioi).

Finantza-pasiboen sarrera —hau da, zorpetze bidezko sarrera— 2000. urtean 76 milioi izan zen Euskal Administrazio Autonomoan. 2001ean, 409 milioi izan zen, eta 690 milioi 2002an. Baina 2001ean ez zen zor garbirik egin; izan ere, zorren ordaintzen edo amortizazioen zenbatekoa handiagoa izan zen zor-jaulkipena baino. Bestalde, 2002an, alderantzizkoa gertatu zen; alegia, Euskal Administrazio Autonomoaren zorpetze-maila 324 milioi eurora igo zen. Zorpetzea handiagoa da Euskal Administrazio Autonomoko erakunde guztietan, bitan izan ezik: Gipuzkoako Foru Aldundian eta Bizkaiko udaletan.

1.5. Bukaerako izakinak guztira


Bukaerako guztizko izakinak %1,4 igo dira 2001. urtearen aldean.

Bukaerako guztizko izakinak igo egin dira aurreko urtearen aldean, aurrekontuko bukaerako izakinak gehiagotzeagatik (%3,3); izan ere, aurrekontuz kanpoko bukaerako izakinak gutxiagotu egin dira. Horrela, 2002ko bukaerako izakinak 2.336 milioi dira, eta 2001ean 2.303 milioi izan ziren.

2. Diru-sarrerak

Euskal Administrazio Autonomoen guztizko aurrekontu-sarrerak 11.187 milioi euro izan dira 2002an; alegia, 2001ean baino %9,2 gehiago. Baina atal handi guztiek ez dituzte izan urteko bilakaera-tasa berberak.

3. grafikoa. Sarrerren bilakaera, motaka. Euskal Administrazio Autonomoak. (milioi euro)



Sarrera arruntak %5,7 goratu dira, eta guztizko sarrerren %90,7 hartzen dute. Kapital-sarrerak %59,0 hazi dira, eta aurrekontu-sarrerren guztizkoaren %2,8 dira. Ehunekoaren aldetik, hazkunderik handiena finantza-sarrerena izan da; izan ere, %61,8 izan da urteko hazkunde-tasa, eta guztizkoaren %6,5 izan da 2002an. Baina alderdirik berriena finantza-sarrerren atalaren bilakaera da. Finantza-sarrerak gutxitu egin dira urtez urte, 1995etik 2000ra arte, 2001ean berriro ere hazten hasi, eta 2002an ere bide horri eutsi diote.


Zuzeneko zergak %4,6 igo dira, eta zeharkakoak %5,6. Zeharkako zergek sortutako sarrerak handiagoak dira zuzeneko sortutakoak baino, 1999az geroztik.

Zeharkako zergak Euskal Administrazio Autonomoen sarrera arrunten %45,3 dira. Atal honetako bigarren gai nagusia zuzeneko zergak dira, eta horiek, sarrera arrunten %44,6 hartzen dute. Horrenbestez, zuzeneko eta zeharkako zergak guztizko sarrera arrunten %89,9 dira.

Honako hauei dagokie gainerako %10,1: tasei (%6,3, 2002an); transferentzia arruntei (%2,6); eta, azkenik, ondarezko sarrerei (%1,2).

Lau zergak sarrera arrunten %73,2 osatzen dute (BEZ, PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta Udaletako zuzeneko zergak), eta BEZak eta PFEZak bakarrik ia %60 hartzen dute.

4. grafikoa. Zerga nagusien bilakaera. Euskal Administrazio Autonomoak. 1990-2002. (milioi euro)



Ekarpen gehien egiten duen zerga BEZ da, hau da, sarrera arrunten %29,5. Igoera %3,2koa izan da 2002an. PFEZaren hazkunde-tasa handiagoa izan da (%4,3), baina sarrera arruntei egindako ekarpena %28,7 da; alegia, BEZak baino zortzi hamarren gutxiago. Kopuru absolutuei begiratuta, BEZaren eskubide aitortuak gehiago dira PFEZarenak baino, 1999. urteaz geroztik. Baina, bai 2001. urtean, bai 2002. ean, PFEZaren hazkunde-tasa handiagoa izan da. Sozietateen gaineko Zerga %6,5 igo da 2002an, eta sarrera arrunten %10,2 dira. Udaletako zuzeneko zergak (523 milioi 2002an) sarrera arrunt guztien %5,2 dira, eta bilakaera positiboa izan dute 2002an (%29,5).


Ehunekoaren aldetik, PFEZa Gipuzkoan hazi da gehien 2002an, %7,7ko urteko hazkundea izan baitu. Araba dator atzetik, %4,3ko urteko tasarekin. Bizkaiko bilakaera, berriz, leunagoa izan da (%2,1). Zerga horren %51,1 Bizkaiari dagokio, %33,0 Gipuzkoari, eta %15,9 Arabari, 2002ko datuen arabera. Hamar urte lehenago, 1993an, ordena hau zen: Bizkaian %53,8; Gipuzkoan %29,9; eta Araban %17,3.

Sozietateen gaineko Zergaren bilakaera desberdina izan da 2002an. Bizkaian hazkunde handia izan da (%9,3); Araban hazkunde ertaina izan da (%5,5); eta txikiagoa Gipuzkoan (%2,3). Bizkaiak Euskal AEko guztizkoaren %53,5 hartzen du; Gipuzkoak %29,9; eta Arabak %16,6. Dagokion grafikoan ageri denez, Bizkaiak beheranzko profila izan du 1995. urtera arte, eta gero oso goranzko bilakaera izaten hasi zen. Arabak eta Gipuzkoak bilakaera apalagoa dute, bai joera jaistekoa edo mantentzekoa denean, bai haztekoa denean ere.


BEZaren bilakaera ere desberdina izan da 2002an. Hazkunderik handiena Arabakoa izan da (%7,4). Gipuzkoa erdibidean dago (%4,7), eta Bizkaiko aldakuntza-tasa askoz ere txikiagoa da (%0,6).

BEZak bildutakoaren %48,0 Bizkaiari dagokio; %34,0 Gipuzkoari; eta %18,0 Arabari. BEZaren profila goranzkoa da, nahiz eta Gipuzkoan eta Araban urteko abiadurak desberdinak diren; Bizkaian, berriz, igoerak, geldialdiak eta beherakadak gertatu dira 1990 eta 2002 bitarteko hainbat urtetan. (Ikus eranskina, 2. taula).


5. grafikoa. PFEZaren lurraldekako bilakaera. (milioi euro)



6. grafikoa. Sozietateen gaineko zergaren lurraldekako bilakaera. (milioi euro)



7. grafikoa. BEZaren lurraldekako bilakaera. (milioi euro)



3. Gastuak


Euskal Administrazio Autonomoen gastu bateratua %6,3 hazi zen

Euskal Administrazio Autonomoaren guztizko gastuek %6,3 egin dute gora 2002an; alegia, 2001ean baino hiru puntu gutxiago, urte horretan %9,3 izan baitzen urteko tasa.

Gastu arruntak, guztizko datuen zati handiena hartzen duenak (%75etik gora), %6,7ko aldakuntza positiboa izan du; horrela, guztizko gastuak osatzen dituzten 10.822 milioi euroetatik, 8.177 milioi gastu arruntei dagozkie. Ehunekoaren aldetik, gastu arruntaren igoerarik handienak Arabako eta Gipuzkoako udaletan gertatu dira (%12,7 eta %10,1, hurrenez hurren). Ondoren honako hauek datoz: Eusko Jaurlaritza (%9,2), Arabako Foru Aldundia (%8,1), Bizkaiko udalak (%7,5) eta Gipuzkoako Foru Aldundia (%6,9). Aurrekoekin alderatuta, Bizkaiko Foru Aldundia nabarmentzen da; izan ere, gastu arruntek askoz ere hazkunde txikiagoa izan dute (%2,5).

Langileria-gastuek %5,4ko hazkundea izan dute Euskal Administrazio Autonomoaren guztizko bateratuan. Hiru lurraldeetako udalek batez bestekoa gaititu dute: %7,9 egin dute gora Gipuzkoakoek, %7,8 Arabakoek, eta %7,1 Bizkaikoek. Eusko Jaurlaritza (%4,2) eta Gipuzkoako Foru Aldundia (%4,8) partida honetako hazkunde-tasen batez bestekoaren azpitik egon dira 2002an. (Ikus eranskina, 3. taula)

8. grafikoa. Gastuaren bilakaera, kategoriaka. Euskal AE.
 (milioi euro)



Bigarren atalak (gastu arruntak) izan du hazkunderik handiena Euskal Administrazio Autonomoetan, hau da, %11,4ko urteko aldakuntza. Atal honetan nabarmentzekoak dira Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundien hazkunde-tasak (%20,3 eta %17,6, hurrenez hurren). Hala ere, euskal erakunde autonomo guztiek gairitu dute %10,0aren muga, Bizkaiko udalek izan ezik (%7,8).

Hirugarren kapituluari (finantza-gastuak) dagokionez, aurrekontu-esleipenak orokorrean behera egin dute, kasu batzuetan, zorra gutxitzea eta, beste batzuetan, interes-jaitziera direla kausa.

Laugarren kapituluak (transferentzia arruntak) bilakaera desberdina izan du hainbat erakundetan 2002an. Ehunekoari begiratuta, guztizkoa %5,4 hazi da. Arabako udalek %28,8ko hazkundera izan dute atal honetan. Bizkaiko udalek eta Eusko Jaurlaritzak ere hazkunde nabarmena izan dute (%16,6 eta %14,1, hurrenez hurren). Gainerakoek bilakaera apalagoa dute, batez ere, Bizkaiko Foru Aldundiak (%2,1eko hazkundera).

Kapital-gastuek %16,1eko urteko hazkundera izan zuten, hots, 2001ean baino hiru puntu gehiago. Kapital-gastuen gorakada hori, Euskal Administrazio Autonomoen benetako inbertsioen hazkundearen ondorio da; izan ere, %25,6 hazi dira 2002ko ekitaldian, kapital-transferentziak gehiegi aldatu ez direlako (%0,5) aurreko urtearen aldean. Inbertsio gehien egin duten erakundeak honako hauek izan dira 2002an: Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (%91,7 eta %21,9, hurrenez hurren); eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako udalak (%27,6, %24,2 eta %17,1, hurrenez hurren). Eusko Jaurlaritzak (%2,0) eta Arabako Foru Aldundiak (%9,1) inbertsio gutxiago egin dute ekitaldi honetan.

Balioak eskuratzen edo/eta mailegu eta aurrerakinak ematen erabilitako baliabideek, hots, finantza-aktiboek, %19,7ko gehikuntza metatua izan dute 2002an. Aldez aurretik hartutako zorra amortizatzeko aurrekontuko zuzkidurek beheranzko bilakaera nabaria (%-34,8) izan dute. Hartutako zorra amortizatzeko 366 milioi erabili dira 2002an; urtebete lehenago 561 milioi erabili ziren horretarako; hau da, 195 milioi gutxiago baliatu dira 2002an zorra amortizatzeko. Ondorioz, finantza-gastuek %16,7 egin dute behera.

4. Euskal Administrazio Autonomoak enplegatutako langileak

2002an enplegatutako langile-kopurua %1,4 hazi da Euskal Administrazio Autonomoan.

Euskal Administrazio Autonomoan enplegatutako langile-kopurua 87.644 zen 2002an, eta ekitaldi horretako urteko hazkundera %1,4 izan da. Euskal Administrazio Autonomoko enpleguak hartzen duen ehunekoa Euskal AEko guztizko enpleguaren %9,8 da. Ratio hori %12,2 zen 1996an, %10,0raino jaitsi zen 2001ean, eta jaisten jarraitu du %9,8ra iritsi arte urtebete beranduago, hots, 2002an.

Euskal Administrazio Autonomoak enplegatutako langileen %67,9 Eusko Jaurlaritzari dagokio (59.537 lagun). Bestalde, %22,1ek toki-administrazioan, udaletan eta erakunde autonomoetan egiten dute lan, hots, 19.328 pertsonak; gainerakoek, 8.779k (%10,0), Foru Administrazioan lan egiten dute.

Enpleguaren hazkunderik handiena Foru Aldundietakoa izan da 2002an; izan ere, hazkundera %4,5ekoa izan da. Eusko Jaurlaritzak tarteko hazkundera izan du (%1,2), eta tokiko erakundeek %0,7 langile gehiago baino ez dute.

Euskal Administrazio Publikoak enplegatutako 87.644 langiletatik, 28.926k merkataritza-sozietateetan eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan lan egiten dute; horien bilakaera %1,6koa izan da, eta gainerakoena %1,3koa.

4. taula. Enpleguaren banaketa. Administrazio autonomoak. 2002

	GUZTIRA	EUSKO JAURLARITZA	FORU-ALDUNDIAK	TOKI-ERAKUNDEAK
GUZTIRA	87.644	59.537	8.779	19.328
Sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak	28.926	26.185	1.099	1.642
Guztira	58.718	33.352	7.680	17.686
Administrazio orokorra	53.772	32.738	5.630	15.404
Administrazio-organismo autonomoak	4.917	614	2.021	2.282
Merkataritza-erakunde autonomoak	29	0	29	0

5. Euskal Administrazio Autonomoaren zorpetzea

Euskal Administrazio Autonomoaren zorpetze-maila berriro ere hazi da (%12,5).

Aurreko urteetako zorra murrizteko prozesua eten egin da; 2000. urtean %15,0 gutxitu zen; 2001ean %7,4; eta 2002an %12,5 areagotu da. Azken bi ekitaldietan zorra 758 milioi eurotan gutxitzea lortu zen, baina, 2002an, Euskal Administrazio Autonomoak amortizatu beharreko zorra 271,6 milioi handitu da. 2002an, 636,5 milioiko balioa duten pasiboak hartu dira, eta ekitaldian egindako amortizazioen zenbatekoa 367,8 milioi da, hots, 268,7 milioi gutxiago.

Euskal Administrazio Autonomoa osatzen duten erakundeei begiratuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak (-10 milioi) eta, batez ere, Bizkaiko udalek (-27 milioi) amortizatu dute egin dutena baino zor zati handiagoa. Gainerako erakundeek amortizatu dutena baino zor handiagoa egin dute: Eusko Jaurlaritzak +147 milioi; Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek, +11 milioi eta +130 milioi, hurrenez hurren; Arabako eta Gipuzkoako udalek, +10 milioi eta +9 milioi, hurrenez hurren.

5. taula. Euskal administrazio autonomoetako finantza-zorra. 2002. (mila euro)

	01-XII-31n amortizatzeke (1)	2002an hartutako pasiboak (2)	2002an amortizatua (3)	2002ko interesak (4)	2002ko finantza- zama (3+4)	02-XII-31n amortizatzeke (1+2-3)
GUZTIRA	2.776.398	636.503	367.808	119.636	487.443	3.047.964
Euskal AEko Udalak	530.996	74.603	82.284	18.857	101.141	523.316
Arabako udalak	37.580	11.619	1.516	1.321	2.837	47.684
Bizkaiko udalak	242.719	17.489	44.298	8.206	52.504	215.910
Gipuzkoako udalak	250.697	45.495	36.470	9.330	45.800	259.722
Foru Aldundiak	839.850	195.000	63.063	41.829	104.892	971.787
Arabako Foru Aldundia	47.420	18.000	6.545	2.537	9.082	58.875
Bizkaiko Foru Aldundia	583.140	177.000	46.486	24.866	71.352	713.654
Gipuzkoako Foru Aldundia	209.290	—	10.032	14.426	24.458	199.258
Eusko Jaurilaritza	1.405.552	366.900	222.461	58.950	281.410	1.552.861

6. Gastuaren banaketa funtzionala

Euskal Administrazio Autonomoen gastu bateratuaren %48,5 gizarte-izaerako ondasun publikoak ekoizteko erabili da 2002an.

Euskal Administrazio Autonomoak 2002an egindako aurrekontu-gastu osoaren %48,5 gizarte-izaerako ondasun publikoen ekoizpena ordaintzeko erabili da. Gastu funtzionalari dagokion atal hau puntu bat eta bi hamarren hazi da aurreko urtearen aldean.

Aurrekontu bateratuan, sektore publikoari egindako transferentziak (gehiena Estatuari ordaindutako kupoa da) Euskal Administrazio Autonomoak egindako guztizko gastuaren %9,3 dira; kopuru hori kenduta, kudeaketa propiorako aurrekontu bateratua da emaitza.

Euskal Administrazio Autonomoaren kudeaketa propiorako aurrekontu bateratua erreferentziazat hartuta, gizarte-izaerako ondasun publikoen ekoizpena guztizko gastuaren %53,5 da. Ekonomia-izaerako ondasun publikoen ekoizpenak kudeaketa propioko aurrekontu-gastuaren %12,1 hartzen du.

Ondoren hauek datoz: gizarte-babesa eta –sustapena (%8,4); herritarren babesa eta segurtasuna (%6,7); zerbitzu orokorrak (%7,7); zor publikoak sortutako gastuak (%5,1); ekoizpen-sektoreen erregulazio ekonomikoa (%4,7); eta izaera orokorreko erregulazio ekonomikoa (%1,8). (Ikus eranskina, 6. taula)

Baina Euskal Administrazio Autonomoko erakunde bakoitzak berezko gastu-egitura du, eta horietako bakoitzak bere eskumen-bokazioa eta jarduera-eremua ditu.

Hezkuntzak eta Osasunak Eusko Jaurilaritzaren guztizko gastuaren %59,5 hartzen dute; beraz, gizarte-izaerako ondasun publikoen ekoizpena gastuaren %66,9 da. Herritarren babesak eta segurtasunak gastuaren %7,8 hartzen dute, eta ekonomia-izaerako ondasun publikoak ekoizteak (oinarrizko azpiegiturak, garraioak eta komunikazioak), %6,5. Ekoizpen-sektoreen erregulazio ekonomikoa (lehen sektorea eta industria, batik bat) gastu-aurrekontuaren %5,7 hartzen du. Zor publikoa finantzatzek eta zerbitzu orokorrek %4,7 eta %4,1 hartzen dute, hurrenez hurren, eta gizarte-babesak, %3,8.

Foru Aldundien baliabideen ia %80 erakundeen arteko konpromisoerik erantzuteko —transferentzia bidez— baliatzen da (Eusko Jaurlaritzarentzako ekarpenak, Estatuarentzako kupoa eta udal-finantzaketak), eta gastu-aurrekontu propioa lortutako sarrera guztien %20 da gutxi gorabehera.

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu propioaren gastu handiena gizarte-babesari dagokio; alegia, guztizko gastuaren %30,9. Bigarren, ekonomia-izaerako ondasun publikoen ekoizpena dago; egindako gastuaren %26,0 da, bai oinarritzako azpiegiturretan, bai nekazaritzako azpiegiturretan. Gizarte-izaerako ondasun publikoek —kulturalak, batik bat— %15,4 hartzen dute, eta zerbitzu orokorrek (administrazio orokorra), %14,1.

Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propioarako aurrekontuaren aldetik, nabarmentzekoa da ekonomia-izaerako ondasun publikoen pisua (%34,1); partida horren barruan, osagai nagusia oinarritzako azpiegiturak eta garraioa dira (%29,8). Gizarte-babesa eta —sustapena guztizko gastuaren %23,1 da, eta gizarte-izaerako ondasun publikoa (ongizatea eta kultura), %9,4. Zerbitzu orokorrak (goi zuzendaritza eta administrazio orokorra) gastuaren %15,1 hartzen du, eta zorraren finantzaketak, %7,7.

Hiru foru erakundeen artean, Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen du ehuneko handiena ekonomia-izaerako ondasun publikoak ekoizteko (oinarritzako azpiegiturak eta nekazaritzakoak), erabilitako baliabide propioen %42,1, alegia. Gizarte-babesa eta —sustapena, gastuaren %23,8 da, eta gizarte-izaerako ondasun publikoa (kultura, batik bat), %8,2. Zerbitzu orokorrek gastuaren %10,7 hartzen dute.

Udalek kudeatutako baliabideen gastu handiena hiru jardueretara bideratzen da hiru lurraldeetan: etxebizitzara eta hirigintzara; komunitate-ongizatera; eta kulturara. Bestela esanda, gastuaren zati handiena gizarte-izaerako ondasun publiko horiek ekoizteko erabiltzen dute udalek. Arabako udalek %46,4 erabiltzen dute horretarako; Bizkaikoek, %51,8; eta Gipuzkoakoek, %50,7. Gizarte-babesa eta —sustapena, gastuaren %16,9 da Arabakoetan; %12,0 Bizkaikoetan; eta %11,1 Gipuzkoakoetan. Ekonomia-izaerako ondasun publikoek (azpiegiturak, batik bat) %9,9 hartzen dute Arabako udaletan; %8,8 Bizkaikoetan; eta %8,0 Gipuzkoakoetan. Udalen zerbitzu orokorrek gastuaren %15,9 hartzen dute Arabako udaletan; %12,0 Bizkaikoetan; eta %11,4 Gipuzkoakoetan.

7. Ondorioak

- Euskal Administrazio Autonomoaren eragiketa arrunten saldoa %1,6 handitu da.
- Finantzez besteko eragiketen saldoak %27,1 egin du behera.
- Finantzatzeko saldo garbia 500 milioi hazi da.
- Euskal Administrazioaren guztizko aurrekontu-sarrerak %9,2ko urteko hazkundea izan dute.
- Euskal Administrazio Autonomoaren guztizko gastuek %6,3 egin zuten gora.
- Euskal Administrazio Autonomoko enplegua Euskal AEko guztizko enpleguaren %9,8 da.
- Euskal Administrazio Autonomoaren zorpetze-maila areagotu egin da (%12,5).

8. 2003ko aurrekontuak

Eusko Jaurlaritzak %4,2ko hazkunde apala duen aurrekontua aurkeztu du 2003rako. Gorakada handiena finantza-aktiboetarako aurreikusitako gastuek egin dute (%48,3), bai eta transferentzia arruntek (%8,7), funtzionamenduko gastuek (%6,8), eta inbertsioek (%6,2) ere. Langileria-gastuak %4,0 hazi dira.

SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKAK

Foru Aldundietako aurrekontuek hazteko joera handiagoa dute. Guztira %6,8 hazi dira. Benetako inbertsioetan hazkunde handia nabari da (%39,3), bai eta kapital-transferentzietan ere (%14,5). Funtzionamendu-gastuek %7,1 egin dute gora, eta langileria-gastuek %3,0.

7. taula. Aurrekontuen bilakaera. Euskal AE. 2002-2003 (mila euro)

	EUSKO JAURLARITZA			FORU-ALDUNDIAK (1)		
	2003	2002	Δ %	2003	2002	Δ %
SARRERAK						
GUZTIRA	6.197.847	5.945.405	4,2	9.399.612	8.974.911	4,7
1- Zuzeneko zergak			-	4.165.682	3.920.465	6,3
2- Zeharkako zergak	7.100	7.220	-1,7	4.713.153	4.535.452	3,9
3- Tasak	54.824	59.352	-7,6	147.730	136.871	7,9
4- Transferentzia arruntak	5.647.375	5.395.781	4,7	149.625	166.761	-10,3
5- Ondarezko sarrerak	43.707	38.509	13,5	22.384	24.173	-7,4
6- Inbertsioen inorentzea	651	751	-13,3	9.179	11.445	-19,8
7- Kapital-transferentziak	44.973	34.145	31,7	139.322	71.003	96,2
8- Finantza-aktiboak	9.217	9.647	-4,5	6.758	12.885	-47,6
9- Finantza-pasiboak	390.000	400.000	-2,5	45.779	95.856	-52,2
GASTUAK						
GUZTIRA	6.197.847	5.945.405	4,2	9.586.888	8.974.911	6,8
1- Pertsonal-gastuak	1.336.799	1.285.770	4,0	344.576	334.691	3,0
2- Funtzionamendu-gastuak	1.855.891	1.738.062	6,8	253.071	236.218	7,1
3- Interesak	90.242	106.898	-15,6	73.794	65.865	12,0
4- Transferentzia arruntak	1.764.314	1.623.204	8,7	8.049.864	7.634.066	5,4
6- Inbertsioak	317.066	298.591	6,2	536.208	385.050	39,3
7- Kapital-transferentziak	435.641	495.148	-12,0	229.983	200.941	14,5
8- Finantza-aktiboak	259.963	175.271	48,3	19.992	44.143	-54,7
9- Finantza-pasiboak	137.931	222.461	-38,0	79.400	73.937	7,4

(1) Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru-aldundiak, 2003, aurrekontu-luzapena

9. ERANSKINA

1. taula. Sarrerren eta gastuen bilakaera, kategorien arabera. Euskal Administrazio Autonomoak. 1991-2002. (mila euro)

	1991	1992	Δ%	1993	Δ%	1994	Δ%	1995	Δ%	1996	Δ%	1997	Δ%	1998	Δ%	1999	Δ%	2000	Δ%	2001	Δ%	2002	Δ%
(I) SARRERAK GUZTIRA	6.059.494	6.393.464	5,5	6.597.004	3,2	6.765.377	2,6	6.812.292	0,7	7.104.744	4,3	7.791.305	9,7	8.673.146	11,3	8.991.610	3,7	9.598.758	6,8	10.249.297	6,8	11.186.659	9,1
1.- Sarrera arruntak	5.103.657	5.386.709	5,5	5.597.442	3,9	5.543.141	-1,0	5.766.891	4,0	6.362.591	10,3	7.079.430	11,3	8.013.505	13,2	8.598.253	7,3	9.366.996	8,9	9.604.606	2,5	10.149.222	5,7
2.- Kapital-sarrerak	144.381	125.894	-12,8	116.212	-7,7	119.048	2,4	188.814	58,6	108.194	-42,7	228.385	111,1	233.493	2,2	132.114	-43,4	122.655	-7,2	195.145	59,1	309.896	58,8
3.- Finantza-sarrerak	811.456	880.861	8,6	883.350	0,3	1.103.188	24,9	856.586	-22,4	633.960	-26,0	483.490	-23,7	426.148	-11,9	261.242	-38,7	109.108	-58,2	449.546	312,0	727.541	61,8
(II) GASTUAK GUZTIRA	6.032.575	6.186.656	2,6	6.706.063	8,4	6.379.533	-4,9	6.646.815	4,2	6.688.724	0,6	7.564.603	13,1	8.192.889	8,3	8.730.897	6,6	9.314.215	6,7	10.178.097	9,3	10.822.617	6,3
4.- Gastu arruntak	4.256.422	4.243.801	-0,3	4.639.242	9,3	4.539.649	-2,1	4.919.002	8,4	5.072.554	3,1	5.840.419	15,1	6.119.433	4,8	6.487.775	6,0	7.057.282	8,8	7.662.886	8,6	8.177.199	6,7
5.- Kapital-gastuak	1.272.228	1.365.037	7,3	1.423.834	4,3	1.262.931	-11,3	1.190.773	-5,7	1.163.896	-2,3	1.280.637	10,0	1.383.512	8,0	1.431.533	3,5	1.481.260	3,5	1.674.952	13,1	1.945.359	16,1
6.- Finantza-gastuak	503.925	577.819	14,7	642.987	11,3	576.954	-10,3	537.040	-6,9	452.274	-15,8	443.547	-1,9	689.944	55,6	811.589	17,6	775.672	-4,4	840.259	8,3	700.059	-16,7
(III) ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-4)	847.235	1.142.908	34,9	958.200	-16,2	1.003.492	4,7	847.890	-15,5	1.290.036	52,1	1.239.010	-4,0	1.894.072	52,9	2.110.478	11,4	2.309.714	9,4	1.941.720	-15,9	1.972.023	1,6
(IV) AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA (III+2-5)	-280.612	-96.234	-65,7	-349.422	263,1	-140.390	-59,8	-154.069	9,7	234.335	-	186.759	-20,3	744.053	298,4	811.060	9,0	951.108	17,3	461.913	-51,4	336.560	-27,1

2. taula. Sarrerren bilakaera. Euskal Administrazio Autonomoak. 1991-2002. (mila euro).

	1991	1992	Δ%	1993	Δ%	1994	Δ%	1995	Δ%	1996	Δ%	1997	Δ%	1998	Δ%	1999	Δ%	2000	Δ%	2001	Δ%	2002	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	6.059.494	6.393.465	5,5	6.597.003	3,2	6.765.377	2,6	6.812.292	0,7	7.104.744	4,3	7.791.305	9,7	8.673.146	11,3	8.991.610	3,7	9.598.758	6,8	10.249.297	6,8	11.186.659	9,1
1.- Zuzeneko zergak	2.395.009	2.457.334	2,6	2.610.105	6,2	2.492.067	-4,5	2.769.602	11,1	3.064.134	10,6	3.203.461	4,5	3.643.191	13,7	3.849.044	5,7	4.087.135	6,2	4.324.861	5,8	4.525.078	4,6
2.- Zeharkako zergak	1.516.762	1.806.336	19,1	1.840.389	1,9	1.867.200	1,5	1.979.337	6,0	2.170.423	9,7	3.032.575	39,7	3.509.364	15,7	3.916.057	11,6	4.359.826	11,3	4.352.649	-0,2	4.595.936	5,6
3.- Tasak	409.193	405.136	-1,0	521.144	28,6	433.005	-16,9	469.847	8,5	496.628	5,7	482.030	-2,9	505.024	4,8	525.723	4,1	556.249	5,8	588.622	5,8	640.043	8,7
4.- Transferentzia arruntak	487.547	544.090	11,6	483.971	-11,0	640.252	32,3	423.034	-33,9	501.148	18,5	251.842	-49,7	256.656	1,9	220.277	-14,2	228.487	3,7	185.362	-18,9	263.943	42,4
5.- Ondarezko sarrerak	295.145	173.813	-41,1	141.833	-18,4	110.616	-22,0	125.071	13,1	130.257	4,1	109.522	-15,9	99.269	-9,4	87.153	-12,2	135.300	55,2	153.112	13,2	124.222	-18,9
SARRERA ARRUNTAK	5.103.657	5.386.709	5,5	5.597.442	3,9	5.543.141	-1,0	5.766.891	4,0	6.362.591	10,3	7.079.430	11,3	8.013.505	13,2	8.598.253	7,3	9.366.996	8,9	9.604.606	2,5	10.149.222	5,7
6.- Inbertsioen inorentzea	14.106	35.694	153,0	42.540	19,2	81.557	91,7	43.561	-46,6	52.967	21,6	72.374	36,6	85.464	18,1	78.612	-8,0	75.343	-4,2	50.609	-32,8	96.608	90,9
7.- Kapital-transferentziak	130.275	90.200	-30,8	73.672	-18,3	37.491	-49,1	145.253	287,4	55.227	-62,0	156.011	182,5	148.029	-5,1	53.502	-63,9	47.312	-11,6	144.536	205,5	213.288	47,6
KAPITAL-SARRERAK	144.381	125.894	-12,8	116.212	-7,7	119.048	2,4	188.814	58,6	108.194	-42,7	228.385	111,1	233.493	2,2	132.114	-43,4	122.655	-7,2	195.145	59,1	309.896	58,8
8.- Finantza-aktiboak	52.132	88.126	69,0	58.599	-33,5	166.150	183,5	96.931	-41,7	61.880	-36,2	59.711	-3,5	37.762	-36,8	60.834	61,1	32.737	-46,2	40.159	22,7	37.047	-7,7
9.- Finantza-pasiboak	759.325	792.735	4,4	824.751	4,0	937.038	13,6	759.655	-18,9	572.079	-24,7	423.780	-25,9	388.386	-8,4	200.407	-48,4	76.371	-61,9	409.387	436,1	690.494	68,7
FINANTZA-SARRERAK	811.456	880.861	8,6	883.350	0,3	1.103.188	24,9	856.586	-22,4	633.960	-26,0	483.490	-23,7	426.148	-11,9	261.242	-38,7	109.108	-58,2	449.546	312,0	727.541	61,8

3. taula. Gastuen bilakaera. Euskal Administrazio Autonomoak. 1991-2002. (mila euro)

	1991	1992	Δ%	1993	Δ%	1994	Δ%	1995	Δ%	1996	Δ%	1997	Δ%	1998	Δ%	1999	Δ%	2000	Δ%	2001	Δ%	2002	Δ%
GASTUAK GUZTIRA	6.032.575	6.186.656	2,6	6.706.063	8,4	6.379.533	-4,9	6.646.815	4,2	6.688.724	0,6	7.564.603	13,1	8.192.889	8,3	8.730.897	6,6	9.314.215	6,7	10.178.097	9,3	10.822.617	6,3
1.- Pertsonal-gastuak	1.653.000	1.810.561	9,5	1.997.878	10,3	2.058.881	3,1	2.184.324	6,1	2.347.121	7,5	2.426.568	3,4	1.817.274	-25,1	1.993.028	9,7	2.031.271	1,9	2.176.838	7,2	2.293.632	5,4
2.- Gastu arruntak	780.012	837.504	7,4	862.242	3,0	919.699	6,7	961.890	4,6	1.029.726	7,1	1.097.562	6,6	2.005.475	82,7	2.124.680	5,9	2.280.120	7,3	2.488.430	9,1	2.772.283	11,4
3.- Finantza-gastuak	217.230	235.615	8,5	293.005	24,4	306.618	4,6	351.015	14,5	348.599	-0,7	339.157	-2,7	274.062	-19,2	214.032	-21,9	190.437	-11,0	177.393	-6,8	137.630	-22,4
4.- Transferentzia arruntak	1.606.181	1.360.120	-15,3	1.486.117	9,3	1.254.450	-15,6	1.421.772	13,3	1.347.109	-5,3	1.977.131	46,8	2.022.622	2,3	2.156.035	6,6	2.555.455	18,5	2.820.225	10,4	2.973.654	5,4
GASTU ARRUNTAK	4.256.422	4.243.801	-0,3	4.639.242	9,3	4.539.649	-2,1	4.919.002	8,4	5.072.554	3,1	5.840.419	15,1	6.119.433	4,8	6.487.775	6,0	7.057.282	8,8	7.662.886	8,6	8.177.199	6,7
6.- Inbertsio errealak	913.130	919.392	0,7	1.022.965	11,3	960.357	-6,1	851.652	-11,3	773.689	-9,2	766.326	-1,0	806.534	5,2	892.906	10,7	871.005	-2,5	1.041.726	19,6	1.308.696	25,6
7.- Kapital-transferentziak	359.099	445.644	24,1	400.869	-10,0	302.574	-24,5	339.121	12,1	390.207	15,1	514.310	31,8	576.978	12,2	538.627	-6,6	610.256	13,3	633.226	3,8	636.663	0,5
KAPITAL-GASTUAK	1.272.228	1.365.037	7,3	1.423.834	4,3	1.262.931	-11,3	1.190.773	-5,7	1.163.896	-2,3	1.280.637	10,0	1.383.512	8,0	1.431.533	3,5	1.481.260	3,5	1.674.952	13,1	1.945.359	16,1
8.- Finantza-aktiboak	122.594	140.601	14,7	231.642	64,8	232.291	0,3	188.135	-19,0	143.648	-23,6	146.479	2,0	170.778	16,6	251.043	47,0	249.564	-0,6	279.057	11,8	333.986	19,7
9.- Finantza-pasiboak	381.330	437.218	14,7	411.345	-5,9	344.662	-16,2	348.906	1,2	308.626	-11,5	297.068	-3,7	519.166	74,8	560.546	8,0	526.108	-6,1	561.202	6,7	366.073	-34,8
FINANTZA-GASTUAK	503.925	577.819	14,7	642.987	11,3	576.954	-10,3	537.040	-6,9	452.274	-15,8	443.547	-1,9	689.944	55,6	811.589	17,6	775.672	-4,4	840.259	8,3	700.059	-16,7

6. taula. Likidazio Funtzionala 2002. (mila euro)

		BATERATUA GUZTIRA	E. JARLITZAKO BATERATUA	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
				BATERATU A	FORU -ALDUNDIA	TOKI- ERAKUNDEAK	BATERATUA	FORU -ALDUNDIA	TOKI- ERAKUNDEAK	BATERATUA	FORU -ALDUNDIA	TOKI- ERAKUNDEAK
0	Zor publikoa	496.498	281.736	10.879	9.035	1.844	138.404	80.623	57.781	65.479	19.171	46.308
1	Zerbitzu orokorrak	758.355	250.072	97.701	44.764	53.046	268.713	136.708	132.005	143.112	58.774	86.670
11	Goi zuzendaritza	196.600	49.011	11.760	4.667	7.093	84.503	65.508	18.995	51.326	35.294	16.032
12	Administrazio orokorra	425.921	74.633	79.158	39.988	39.170	181.672	68.774	112.898	91.688	23.480	70.540
13	Kanpo-harremanak	36.729	34.316	—	—	—	2.426	2.426	—	—	—	—
14	Justizia	92.112	92.112	—	—	—	—	—	—	—	—	—
19	Zehaztu eta aurreikusi gabeko gastuak	6.993	—	6.783	—	6.783	112	—	112	98	—	98
2	Defentsa, babes zibila eta herritarren segurtasuna	657.059	471.682	23.986	—	23.986	97.546	21.084	78.246	64.259	11.971	52.288
22	Segurtasuna eta babes zibila	657.059	471.682	23.986	—	23.986	97.546	21.084	78.246	64.259	11.971	52.288
3	Gizarte-segurantza, -babesa eta -sustapena	820.894	229.313	153.451	97.786	55.665	358.262	242.493	132.268	200.860	130.387	84.780
31	Gizarte-segurantza eta -babesa	530.901	166.577	134.976	97.786	37.190	214.536	134.037	93.190	128.779	77.119	65.967
32	Gizarte-sustapena	289.993	62.736	18.475	—	18.475	143.726	108.456	39.078	72.081	53.268	18.813
4	Gizarte-izaerako ondasun publikoen produkzioa	5.249.524	4.027.701	201.432	48.649	154.782	665.400	98.634	570.574	429.654	45.082	386.904
41	Osasuna	1.958.457	1.930.876	3.363	—	3.363	19.699	—	19.699	4.534	—	4.534
42	Hezkuntza	1.714.964	1.648.991	8.932	—	8.932	43.297	—	43.297	29.808	—	29.808
43	Etxebizitza eta hirigintza	459.094	126.092	58.437	3.294	55.143	168.808	7.323	161.485	112.888	7.488	105.400
44	Ongizate komunitarioa	384.612	75.712	34.539	—	36.647	195.540	37.478	158.062	117.825	4.943	112.882
45	Kultura	603.642	155.407	90.600	45.355	45.245	209.581	48.842	164.547	150.624	28.693	124.263
46	Beste gizarte-zerbitzu eta zerbitzu komunitario batzuk	31.783	4.742	5.038	—	5.038	17.627	—	17.627	4.376	—	4.376
47	Euskara sustatzea	96.972	85.881	523	109	414	10.848	4.991	5.857	9.599	3.958	5.641
5	Ekonomia-izaerako ondasun publikoen produkzioa	1.191.651	391.916	111.150	82.331	33.036	445.963	357.114	96.463	289.385	231.116	60.600
51	Oinarrizko azpiegiturak eta garraioak	920.249	231.946	72.844	49.908	25.045	401.078	311.523	93.361	261.144	210.618	52.857
52	Komunikazioak	69.893	68.610	155	—	155	656	—	656	472	—	472
53	Nekazaritza-azpiegiturak	107.380	—	37.953	32.423	7.638	42.332	44.107	2.033	27.095	20.498	6.597
54	Ikerkuntza zientifikoa, teknikoa eta aplikatua	83.899	81.843	44	—	44	1.833	1.484	349	179	—	179
55	Oinarrizko eta estatistika-informazioa	10.230	9.517	154	—	154	64	—	64	495	—	495

SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKAK

6	Izaera orokorreko ekonomia-erregulazioa	177.862	20.999	27.861	20.807	7.054	79.090	53.354	25.736	50.041	27.575	22.466
61	Ekonomia-erregulazioa	140.236	14.305	18.942	11.930	7.012	69.496	47.481	22.015	37.622	19.865	17.757
62	Merkataritza-erregulazioa	8.467	–	40	–	40	3.718	–	3.718	4.709	–	4.709
63	Finantza-erregulazioa	29.159	6.694	8.879	8.877	2	5.876	5.873	3	7.710	7.710	–
7	Produkzio-sektoreen ekonomia-erregulazioa	463.765	345.415	17.371	13.271	4.100	64.878	56.754	8.124	47.097	24.607	22.490
71	Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	166.698	154.310	388	–	388	6.152	5.678	474	10.253	9.721	532
72	Industria	211.415	126.386	15.150	13.271	1.879	43.504	40.910	2.594	26.526	14.719	11.807
73	Energia	20.139	17.835	730	–	730	1.138	–	1.138	494	–	494
74	Meatzaritza	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–	–
75	Turismoa	36.560	13.676	1.103	–	1.103	14.084	10.166	3.918	9.824	167	9.657
76	Merkataritza	28.953	33.208	0	–	–	0	–	–	0	–	–
9	Beste herri administrazioekiko finantza-harremanak	1.007.009	14.863	1.098.253	1.228.707	9.713	3.244.835	3.734.834	–	2.142.650	2.421.996	–
91	Transferentziak sektore publikoari	1.007.009	14.863	1.098.253	1.228.707	9.713	3.244.835	3.734.834	–	2.142.650	2.421.996	–
	GUZTIRA	10.822.617	6.033.697	1.742.084	1.545.350	343.226	5.363.091	4.781.598	1.101.197	3.432.537	2.970.679	762.506

NOTA INFORMATIVA:

Euskadiko sektore publikoaren baterakuntza egin den arren, kontuan izan behar da ez dagoela homogeneotasunik erakundeek egiten duten banaketa funtzionalean.

Funtzio bakoitzaren kodetzeari eta deskripzioari dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren egitura funtzionalari jarraitzea erabaki da (toki-erakundeek 62. funtzioa ere sartuta). Halaber, foru-aldundi eta toki-erakunde bakoitzak emandako funtzioen eta literalen arteko korrespondentzia ere egin da, erakunde bakoitzak argitaratzen duen egitura funtzionala errespetatuz, hau da, ez dira programak berriro sailkatu, euskarako programak salbu. Kasu horretan honako egokitzapena egin da:

- 1.- Toki-erakundeetan euskaltegiak 42. funtzioan (Hezkuntza) edo 45.ean (Kultura) sartzen dira, bereizketarik gabe, eta Eusko Jaurlaritzan, oster, 47. funtzio bat dago (Euskararen sustapena). Baterakuntza egitean, transferentzia-zenbatekoa dago udaletara, 47. funtzioaren bidez. Euskaltegien zenbatekoak 42. eta 45. funtzioetan lortu eta 47.era pasa dugu.
- 2.- Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek Euskararen sustapena eta Euskararen normalizazioa programak 45. funtzioan sartzen dituzte. Zenbatekoa hortik kendu eta 47. funtzioara pasa dugu. Arabako foru-aldundiak Euskalduntzea 12. funtzioaren barruan sartzen du eta zenbateko hori hortik kendu eta 47. funtzioara pasa dugu.

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



Eustat

EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

www.eustat.eus